

hondo-hondotik

Martin Aranburu

(EAko Batzorde Eragileko kidea)

Maiatzak 1: Langilearen Eguna

Aurki Maiatzaren Lehena ospatuko dugu beste behin Euskal Herrian, eta hori dela-eta langileria eta ezkeraren inguruan gogoeta batzuk egiteko gogoia datorkit gaur. Euskal Herrian dugun arazo politikoaz hitz egiten dugun bitartean, are eta gehiago kanpaina formalki hasi zaigunetik, itxaropen izpi batzuk sumatzen ditut gugandik gertu. Hain zuzen, aste honetan ezagutu ahal izan ditugu Frantziako PSF alderdiaren gobernuak hartu dituen neurri ekonomiko berriak. Zehazki, G7ren partaide den Frantzia aberatsean, fiskalki zigortuak izango dira irabaziak izanik langileak kaleratzen dituzten enpresariak, eta, bestalde, langileen kaleratzea gehiago garestituko dute.

Alde batera uzten dut Jospinen gobernuak Iparraldearekin duen politika, geure burua euskalduntzat dugunok ezin baitugu inolaz PSFren gobernuaren politika txalotu, baina onartu egin beharra daukat arlo ekonomikoan eta sozialean gehiago begiratu beharko genituzkeela Jospinen gobernuak hartzen ari dituen neurriak. FMI erakundetik 2001. urterako hazkunde ekonomikoaren jaitsiera bat aurreikusten denean, eta berau ekiditeko, hain zuzen, enpresen lehiakortasuna handitu beharra azpimarratu denean (badakigu soberan kompetibitate hobea lortzearen nor-tzuek jasaten dituzten azkenean enpresen erabakien ondorioak, hala nola kaleratzearen merkatazea, kostuen jaitsiera...), G7 taldeko partaide den Frantziak gomendapen horiei muzin egin eta lehen aipatutako neurriak hartzen ditu.

Ezkeraren eta eskuinaren arteko debatea antzua dela esaten zaigu sarritan,

gaur egun ezkeraren eta eskuinaren arteko desberdintasunak azpimarratzeak zentzurik ez omen duela esanez. Beti pentsatu izan dut horrelako baieztapenak egiten dituenak normalean eskuindartzat duela bere burua, oraindik ere askoz ere errazagoa suertatzen baitzaio ezkeraren eta eskuinaren existentzia ukatzea bere burua eskuindartzat onartzea baino. Frantziak gertatutakoak beste behin frogatzen du ezkerak bizi-jarraitzen duela, eta ez bakarrik bizi-jarraitzen duela, eta ez bakarrik bizi-jarraitzen duela, legebiltzarretan oposizioa egiteko eta filosofikoki ezin hobeak diren idazlanak egiten dituzten intelektualak bere magalean biltzeko, baita gobernuan egoteko ere, eta are eta garrantzitsuagoa, gobernu bati ezker kutsua emateko. Europar Batasunaren motorretako bat den Frantziak eta G7ren partaideetako bat den Frantziak enpresarien aurkako neurriak hartzen baldin baditu, posible izango da neurri berberak beste zenbait lekutan aplikatzea, ezta? Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez? Ezkeraren planteamendu historikoak (azken hitza bereziki azpimarratu nahi nuke sozialdemokraziaren Hirugarren Bidearen defendatzaileentzat) irrealistatzen jo dituzte askok, gobernu batek aplikatzea ezinezkoa omen zelakoan... Frantziak aplikatu ditu, bada.

Maiatzaren Lehena. Langileen Eguna. Ezkertiarren eguna. Historian zehar ezkerak egindako borroka askoren ondorioz lortutako lorpena. Aurten nik, behintzat, badaukat egun horretan pozik egoteko beste motibo bat: sozialdemokrazia, benetako sozialdemokrazia, bere balioa frogatzen hasia da. Ea eskuinaren bukaera hasi den.

Joseba Garmendia

(Udalbiltzaren Gizarte eta Ekonomia lan taldeko arduraduna)

Esparru soziala garatzeko bidean

Maiatzaren Lehena, Langileen Eguna. Urteroko hitzordua euskal langile guztiontzat. Enpresarien, informatikarien, tabernarien, dendarien, etxekoandreen... oro har, langile guztien eguna da. Eguna bat gehiago egutegian, eta egun honetan soilik bada ere, langileon eskubideak eta beharrak aldarrikatuko ditugun eguna. Batzuek festa edo jai egun gisa hartuko dute, baina nazio erakuntzan urrats txiki bat, pauso bat, emateko unetzat ere planteatzeko asmoa dugu Udalbiltzako kideok.

Gaur egungo egitura-keta instituzionalari eta lurralde banaketari begiraturaz gero, berehalaxe oharitzen gara egoera honek lan harreman eta babes sozialeko sistema propioa egituratzeko ahalmenak ukatzen dizkigula euskaldunoi. Horren adibide garbiak dira lan erreformak eta segurantzaren sozialeko sistema Madriletik eta Parisetik zuzenki erabakitzea, euskal eragile sozialen eta sindikatuen parte-hartzea eta aportazioak kontuan hartu gabe. Horren haritik, Udalbiltzak helburu duen nazio erakuntzak ezinbestean esparru soziala garatu behar du.

Hori dela eta, Maiatzaren Lehenari begira, Udalbiltzako kideok bi aldarrikapen nagusi egiten ditugu. Batetik, orain bi urte Bilboko Euskalduna jauregian eginitako Batzar Orokorrean erabaki bezala, eta aurtengo otsailean Donostiako Kursaal jauregian berretsi bezala, argi adierazi behar dugu Euskal Herriak eskubidea duela bere lan harremanen eta ba-

bes sozialerako eredu propioa antolatzeko, bi estatuen menpe egon gabe. Helburu hau betetzeko bidean bitartekoak jartzeko konpromiso garbia hartu du jada Udalbiltzak.

Bestetik, gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzeko bidean, erakuntza nazionalen ezinbestekoa da langileen inplikazioa. Ildo horretan, erakuntza nazionala soilik posible izango baita, gizarteari eta langileei zuzendutako egitasmo erakargarrian eta parte-hartzailen oinarritzen bada.

Udalbiltzako kideok norabide horretan lana egiteko konpromiso garbia hartu genuen Euskaldunak eta Kursaalaleko Batzarrean berretsi. Horren isla dira, hain zuzen ere, une honetan abian jartzen ari garen egitasmoak. Hala nola,

Euskal Kontseilu ekonomiko eta sozialaren hazia, euskal lan egutegia zehazteko lehen urratsak, Euskal Herriko eskualdeen arteko kohesioa indartzeko egitasmoak,...

Egitasmo horien inguruan lan egingo dugu Udalbiltzako kideok, Europar Batasunarekin eta Espainia zein Frantziarekin ditugun harremanak menpekotasunezkoak izan ez daitezen eta subiranotasun maila berdinduan oinarritu daitezen.

Maiatzaren Lehenak aldarrikapen eguna behar du izan. Berezko esparru sozial eta ekonomikoak garatu behar dugu euskaldunok, eta jada abian dagoen norabideari eutsi eta urrats handiagoak egin.

LANGILEEN BEHARRA

Eraikuntza nazionalen ezinbestekoa da langileen inplikazioa

gogoratu

Joxan Elozegi

DUELA 184 URTE

Urkixo hargin beltza

1817ko maiatzaren 3an hil zen Parisen, Mariano Luis Urkixo Muga politikari bizkaitarra. Bilboko etxe nagusietako batean sortu zen 1768an eta Madril bizi izan zen nerabe urteetan. Oinarrizko ikasketak bururatu ondoren, Frantziara igorri zuen Urkixo zaharrak eta lehenengoz egin zuen han topo entziklopediazaleen ideiekin. Unibertso burges zabalaren abantailaz jabetutakoan egin zuen Lege karrera Salamancan.

Aurreramenduak, iraultza burgesak, framazonen idealek eta ekinbide politikoak kezkatu zuten bereziki Urkixo gaztea. Idazle bizkorra zen eta Voltaireren *La mort de César* tragedia espainiaratu zuen 1791n. Inkisizioaren berri ukan zuen berehalakoan baina, zaldun prestu

aberatsa izaki, kartzela saihestu ahal izan zuen ministro batzuen laguntzari esker, eta aukera eman zioten diplomazian: Londresen jardun zuen 1797ra arte eta enbaxadore titulua estreinatu zuen ondoren Holandan. Frantziako Konbentzioak eta Napoleon izeneko batek hankaz goiti jarria zuten ordurako Europa, eta aise ibilki zen Urkixo egoera hartan. 1798an deitu zuten Espainiako gobernura eta Es-

tatuko ministro-idazkari nagusi egin zuen 1799an. Ahalegin handiak egin zituen modernizazioaren alde, osasunaren alorrean sarrera egin zion txertoari eta saiatu zen Inkisizioa eta esklabutza legez kanpo uzten, haren abolizioa aldarrikatu zuen lehen ministro europarra izan baitzen. Etsai asko zituen gobernuan eta kanpoan, Napoleon Bonaparte tarteko, eta kartzelak, konspirazioek, ministerio-

ek eta erbestera beharrak bete zituzten Urkixoren azken urteak. Liberal argia izan zen beti eta bere ideiei leial hil zen deserrian.

Euskal Herritik urrun bizi izan zen Urkixo. Bazekien foruak ez gordetzera istilu gaitzak sortuko zirela eta haien alde saiatu zen 1808an Baionako Konstituzioa zehazterakoan. 1800. urtean, Juan Antonio Mogelen *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac* liburua argitaratu nahi zutela-eta, honela eskatu zion Nafarroako Errege Kontseiluari Espainiako erregeren izenean: «*no se oponga a la impresión de esta Obra, ni de otra alguna por ser bascongada*». Eta honela iritzi zion Mogelen liburuari: «¿Qué triunfo para nuestro perseguido idioma!». Horrelakoak ziren gure lehen hargin beltzak.